

berria



Mugartegi eta Lejardi, Winter Serieseko lehen txapeldunak: «Pozgarria da horrenbeste jende etorri izana»

KIROLA • 20

Bere horretan eutsiko diote 'mozal legeari', aldatzeko akordio faltagatik

EH Bilduk eta ERCK ezezko botoa eman diote erreformari Espainiako Kongresuko Segurtasun Batzordean • EH Bilduren ustez, atal kaltegarrienei eutsi die proposamenak • EAJk alde bozkatu du

EUSKAL HERRIA • 8

KPIa %5,9 igo da Hego Euskal Herrian, elikagai garestiengatik

Espainiako Gobernuak jakien BEZa murriztu izanak ez du lortu haien inflazioa jaitea. Azpiko inflazioa aspaldiko handiena da: %7,5.

EKONOMIA • 11

Lehengaiak. EB, hornidura zabaltzeko aliatu bila

Europako Batasunak AEBekin eta Kanadarekin bat egin nahi du Txinaren monopolioa amaitzeko.

HARIAN • 2-3

BERRIA

XIMENA PERALTA

TXILEKO CONVERGENCIA SOCIAL ALDERDIKO LEHENDAKARIORDEA

«Boric oso sendo ikusten dut, lidergo argi batekin»

MUNDUA • 15



UEMArekin bat egin duten udalerrietako batean, Arruazun, egin zuten aurkezpena, atzo. UEMA

EHUN HERRI UEMA-N

Udaleri Euskaldunen Mankomunitatearekin bat egin dute Arrankudiagak, Arruazuk, Doneztebek eta Etxebarriak. Erakundeak 101 kide ditu orain.

EUSKAL HERRIA • 7

Egungo Euskararen Hiztegia aurkeztu du EHUren Euskara Institutuak: orain arteko «zehatzena»

EUSKAL HERRIA • 6

Sexuaz hitz egin adingabeekin

Haur eta gazteek izan ditzaketen zalantzak argitzeko, helduek landu egin behar dute komunikazioa.

BIZIGIRO • 30-31

AEBek Errusiari egotzi diote beren drone bat suntsitzea nazioarteko aire eremuan, Itsaso Beltzaren gainean

MUNDUA • 16

UEMAk ehun kide baino gehiago izango ditu hilaren 25etik

Arrankudiaga, Arruazu, Doneztebe eta Etxebarria gehituko dira mankomunitatera

- UEMAk ekitaldia egingo du Azpeitian

Mikel Elkoroberezibar Beloki

Arrankudiaga (Bizkaia), Arruazu (Nafarroa), Doneztebe (Nafarroa) eta Etxebarria (Bizkaia) UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide bihurtuko dira martxoaren 25ean. Udal horietan, ehun kide baino gehiago izango ditu UEMAk, eta langa sinbolikoa gaituko du. Zehazki, 101 udalek osatuko dute mankomunitatea, eta guztien artean 305.000 biztanleko lurgunea osatuko dute.

Hori ospatzeko, ekitaldia egingo dute Azpeitiko (Gipuzkoa) Soresau antzokian martxoaren 25ean, 11:00etan, «udalerrri euskaldunek euskararen biziberritzea eta herri honi egiten dioten ekarpena nabarmentzeko». Oholtzan izango dira Ines Osinaga musikaria, Elene Carrero dantzaria eta Jon Maia bertsolaria, besteak beste.

101 udal horiek «euskaratik eta euskaraz herri honi egiten dioten ekarpena» aitortzea eta eskertzea izango da Azpeitiko ekitaldiaren helburuetako bat, Iraitz Lazkano UEMAko lehendakariaren arabera. Horregatik, udaletako alkate eta ordezkariak gain, herri horietako euskalgintzako kideak ere izango dira Soresau antzokian egingo duten ekitaldian. Atzo, Arrankudiagako, Arruazuko, Doneztebeko eta Etxebarriko alkateek UEMAko arduradunekin elkartu ziren Arruazun, eta lau alkateek adierazi zuten «gogotsu» daudela UEMArekin lanean hasteko. Azaldu zuten udalei «eredugarri» izatea dagokiela, eta, horretarako, hainbat neurri areagotuko dituztela, udalerrriak euskalduntzeko zerbitzuak UEMArekin landuta.

Udalerrri euskaldunak eta euskararen arnaguneez duten garrantzia nabarmendu zuen Laz-

kanok: «Euskararen erdia udalerrri euskaldunetan ekoizten dela adierazten dute adituek eta soziolinguistek. Ekoizti ez ezik, biziberritu ere egiten da euskara udalerrri euskaldunetan, belaualdiz belaualdi, modu naturalean». Erantsi zuen horrek «egundoko eragina» daukala euskararen erabileran, udalerrri euskaldunetan herritarrek beste herri batzuetara zabaltzen dutelako euskara. Horregatik, Lazkanok adierazi zuen «ezinbestekoa» dela herri horiek zaintzea, babestea eta garatzea.

Erronka berriak

Lazkanok azaldu zuen udalerrri euskaldunak aldatu egin direla azken urteotan, eta erronka berriak dituztela euskararen ezagutzaren eta erabilerearen arteko

101 udalek osatuko dute mankomunitatea, eta guztien artean 305.000 biztanleko lurgunea osatuko dute

arrakala leuntzeko. UEMA bera ere aldatu egin dela esan zuen lehendakariak: «Gaur egun, UEMA-n daude euskararen arnaguneez, baina badakigu UEMAko kide diren udal guztiak ere ez direla euskararen arnaguneez. Udalerri euskaldun horiek ere, ordea, funtsezkoak dira euskararen etorkizunerako. Udalerri horiek datozen urteetan izaten duten bilakaera garrantzitsua izango da euskararen biziberritzean; eta guztietan, arnaguneetan zein udalerrri euskaldunetan, izango da beharrezkoa politika ausartak egitea eta euskara nagusituko den eremua indartzea».

Horretarako, konpromisoa hartu dute UEMAko udalek, Lazkanok azaldu zuenez: «Gure egitekoa izango da arnaguneez eustea eta gainerako udalerrri euskaldunak ere arnagune izan daitezen lan egitea».



Arrankudiagako, Arruazuko, Doneztebeko eta Etxebarriko udalretako eta UEMAko ordezkariak, atzo, Arruazun. UEMA